



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

108. INFORMAZIO BULETINA

> 2016ko Otsaila



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Eskualde Garapenarako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Enplegua eta berrikuntza izango dira Gipuzkoako Foru Aldundiak jasoko dituen EGEF eta EGF funtsen lehentasun nagusia

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2016ko otsailak 9an onartu eta berretsi egin du Eskualde Garapenerako Europako Funtsaren (EGEF) eta Europako Gizarte Funtsaren (EGF) finantziarioa edukiko duten Aldundiaren proiektuen zerrenda, 2014-2020 aldiari dagokion Europar Batasunaren inbertsio errondaren barruan.

Aldundiaren hainbat proiektu diruz lagunduko ditu Europak, %50arekin. EGEFren barruan 18.445.109 euro emango dizkio Aldundiari, eta EGFren barruan, berriz, 2.925.000 euro (21.370.109 euro, guztira).

EGEF funtsetan Aldundiak duen parte-hartzea 12 proiektutan jasotzen da, 4 gaikako lan ildo nagusitan sailkatzen direnak: informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera, kalitatea eta eskuragarritasuna hobetzea; enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzea; sektore guztietan karbono gutxiko ekonomia baterako aldaketa erraztea; eta ingurumena artatzea eta babestea, eta baliabideen efizientzia sustatzea.

EGFri dagokionez, Gipuzkoaren partaidetza 'Autoenplegua sustatzen' izeneko ekimenaren bitartez gauzatzen da. Bi lan ildo nagusi ditu: Txekin, enpresen proiektuei laguntzeko, enpresak sortzeko prozesuetan; eta Emeki, emakumeek enpresak sortzeko bultzatutako prozesuei laguntzeko eta indartzeko. Guztira, Aldundiak 5.850.000 euro inbertituko ditu atal honetan, enpleguaren jasangarritasuna eta kalitatea, eta lan mugikortasuna errazteko. Disgaitasuna dutenen, langabetuen, bazterkeria pairatzen dutenen, eta probrezia arriskuan daudenen laneratzea da jorratzen den alorretako bat.

EGEF funtsen barruan ere, komeni da ETE ekimena azpimarratzea, enpresa txiki eta ertainei finantzaketarako bideak erraztea helburu duena. 989.279 euro inbertituko dira egitasmo honen barruan, eta horri Eusko Jaurlaritzaren eta Estatuko Administrazio Orokorren ekarpen proportzionala gehitu behar zaio. Guztira, 3,9 milioi euroko kopurua batzen dute hiru erakundeek; eta Inbertsioetarako Europar Bankuaren (IEB) eragin multiplikatzaila ezarri gero, Lurraldeko enpresa txiki eta ertainentzat 30,96 milioi euroko kopurua suposatuko du, kredituetan.

Informazio gehiago:

http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/noticias/2016-02-09%20_Gipuzkoa%20FEDER%20y%20FSE%202014-2020_eus.pdf



> Europako funtsen DUSI deialdiak Pasaiaiko Badiaren biziberritzerako 9 milioi ekar ditzake

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak Batzar Nagusietan iragarri du Pasaiaiko Badiarako 2014-2020 eperako erakundearteko estrategia hautagaietako bat aurkeztu dela DUSI deialdian (Hiri Garapen Iraunkor eta Integratua). Deialdi hau 2014-2020 Hazkunde Jasangarrirako EGEF Programa Operatibo barnean dago.

Mugikortasuneko Departamentuak aurkeztutako proposamena Errenteria, Lezo, Oiartzun eta Pasaiaiko udaleekin eta Oarsoaldeko Garapen Agentziarekin batera egin du. HGII europar programan jasotako lau esparruak jorratzen dituzten proiektuak eta jarduerak; lau esparru horiek ondokoak dira:

Aldundiak eta udalek Pasaiaiko Badiarako proiektatu dituzten proiektuek 18 milioi euro hartzen dituzte guztira, eta HGII programak kopuru horren erdia finantza lezake, 9 milioi alegia; % 35 Aldundiak finantzatuko luke, 6,3 milioi alegia, eta ukitutako udalek % 15 (2,7 milioi).

Aurkeztutako ekimenak ondorengo esparrutan jardungo dira: IKTak. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak, karbono gutxiko ekonomia, ingurumenaren eta ondarearen babesa eta gizarteratzea.

Proiektu horiek zerikusia dute herritarren arretarako zerbitzuak eta e-administrazioa garatzearekin, energia berriztagarriak bultzatzearekin eta eraikin eta zerbitzu publikoetan energia aurreztearekin, mugikortasun iraunkorra eta irisgarritasun bertikala indartzearekin, histori eta paisaia ondarea berreskuratzearekin, ekintzailtza eta kolektibo desfaboratuen gizarte eta laneko integrazioa bultzatzeko neurriekin...

Informazio gehiago:

<http://www.gipuzkoa.eus/eu/-/afpdoj>



> Zabalik dago euskal arrantza-sektoreko tokiko garapen parte-hartzailearen estrategiak aurkezteko deialdia

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak tokiko garapen parte-hartzaileko eta Europako Itsas eta Arrantza Funtsean 2014-2020 programazio aldian kudeaketaren arduradunak ziren arrantza-sektoreko tokiko ekintza taldeen estrategiak aukeratzeko eta onartzeko deialdi publikoa argitaratu du.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2014-2020 Arrantza eta Akuikultura Plan Estrategikoak arrantza-eremuen garapena arrantza-udalerriek erauzketa-arrantzaren sektorearekiko duten mendekotasuna murriztera zuzendutako estrategien, proiektuen eta ekimenen garapenerako jarduera-testuinguru gisa txertatzen du, ehun sozioekonomikoaren dibertsifikazio-prozesua jarraituz; era berean, arrantza-sektorearen dibertsifikazioa bultzatu nahi du itsasoa-arrantzarekin zerikusia duten jardueren arabera sarrera osagarrietan oinarrituta. Ardatz hori izango da Euskadiko Tokiko Arrantza Ekintza Taldeentzako lan-oinarria eta testuingurua. Hori guztia iraunkortasun ekonomikoan, sozialean eta ingurumenekoan oinarrituta.

Eskaerak aurkezteko epea 2015eko apirilaren 13an amaituko da.

Informazio gehiago:

<http://www.jusap.ejgv.euskadi.eus/r47-bopvapps/es/bopv2/datos/2016/02/1600635a.shtml>



KOHESIO-POLITIKA

> Euskadi, Europako funtsak banatzeko irizpideen erreforma sustatzen duten administrazioen artean

Europako Eskualdeen Batzordeak, Europako Batzordearen hitzarmen baten bidez, Europako funtsak banatzeko irizpideen erreforma eskatu du. Zehazki, Asturias, Balear Uharteak, Gaztela eta Leon, Galizia, Murtzia eta Euskadi buru dituen proposamenak adierazpen sozialak eta ingurumen-adierazleak kontuan izan nahi ditu Europako funtsak esleitzean eta lurralde-kohesioko politikak kudeatzean.

Proposamenaren helburua Europan eskualdeen eta hirien eta landako eremuen artean dagoen gero eta handiagoa den arraila ekonomikoa eta soziala arintzea da, Europako laguntzak behar gehien duten eremuetarantz zuzenduz. Gaur egun, Barne Produktu Gordina (BPG) erreferente handia da Europako kutxetatik datozen funtsak banatzeko orduan. Asturias, Balearrak, Gaztela eta Leon, Galizia, Murtzia eta Euskadi daude lurralde-garapenerako Europako adierazle berrien artean langabezia, lan-kalitatea eta populazioaren zahartzea txertatzeko proposamen berrien buruan.

Informazio gehiago:

<http://cor.europa.eu/es/news/Pages/fondos-europeos.aspx#.VryI53BPIMU.linkedin>



> SUDOE 2014-2020 proiektuen deialdiko lehen fasearen ebazpena argitaratu da

Otsailaren 23an web-atarian argitaratu da 2014-2020 Interreg Sudoe Programaren 2016 deialdiko lehen fasea gainditu duten proiektuen zerrenda. Argitaratutako informazioak proposamen bakoitzak lortutako puntuazio orokorra barne hartzen du.

Lehen fasea gainditu duten proiektuko sustatzaileak Santanderren bilera teknikoan parte hartzera gonbidatuko dituzte martxoaren 16an eta 17an bigarren fasean hautagaitza sakontasunean lantzeko. Programaren kudeaketa-erakundeek bigarren faseko hautagaitzako formularioa prestatzeko arlo teknikoei buruzko informazio guztia eskainiko dute.

Bigarren fasea amaitu ostean, 2016ko apirilaren 29an, Programako kudeaketa-erakundeek hautagaitzak ebaluatzeari ekingo diote eta prozesu hori 2016ko ekainaren amaierara arte luzatuko da. Onartutako proiektuen jakinarazpena 2016ko ekainaren 30ean izango da. Horrela, proiektuek 2016ko uztailaren 1ean hasi ahal izango dute jarduera.

Informazio gehiago:

<http://interreg-sudoe.eu/contenidoDinamico/LibreriaFicheros/A0B3D256-5CEF-FA6B-7188-7FA8128A4B08.pdf>

<http://interreg-sudoe.eu/noticias/noticias-sudoe/22-la-resolucion-de-la-primera-fase-de-la-convocatoria-de-proyectos-sera-publicada-el-24-de-febrero-de-20163>



> EGEF 2014-2020 Ebaluazio Komuneko Plana kontsulta publikorako zabalik

Garapenerako lankidetzaren printzipioa betez, Ogasun Ministerioaren eta Administrazio Publikoaren Komunitate Funtsen Zuzendaritza Orokorrak EGEF 2014-2020 Ebaluazio Komuneko Planari buruzko kontsulta publikoa egiteko aldia zabaldu du.

EGEF 2014-2020 Ebaluazio Planaren helburu nagusia "Programa Eragileen ezarpenean Kudeaketa Agintaritzari eta Bitarteko Erakundeei Laguntzea da, eta horren eraginkortasuna eta inpaktua aztertzea". Ebaluazio-sistema bi zatitan egituratuta dago: programa guztiekiko komuna den zati bat eta bakoitzarentzako berezia den beste bat, hau da:

- Ebaluazio Komuneko Plana, EGEF Programa Eragile guztiekiko komunak diren elementuekin. Programa Eragile guztiei eragiten dien elementu komunak edo orokorrak ditu, programa eragile bati baino gehiagori edo Funts bati baino gehiagori eragiten dioten zeharkako izaera duten ebaluazioak barne hartuz.
- EGEF Programa Eragile bakoitzaren Ebaluazio Plan Zehatzak. Planaren zati hau Programa Eragile bakoitzerako zehatza da. Ebaluazio Plan Zehatzen edukiak autonomia-erkidego bakoitzak proposatzen ditu.

Eragile ekonomiko eta sozialek, gizarte zibileko ordezkariak edo herritarrek beren behaketak eta proposamenak igor ditzakete dokumentuaren kalitatea hobetzeko martxoaren 10era arte.

Informazio gehiago:

<http://www.dgfc.sgpg.meh.es/sitios/dgfc/es-ES/ipr/fcp1420/e/PEF1420/Paginas/PEF1420.aspx>



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Euskadiko 6 ETEk jasoko dute HORIZON2020 finantzazioa I+G prototipoak eta jarduerak garatzeko eta horietatik 4 gipuzkoarrak dira

HORIZON 2010 programaren parte den ETE-ei zuzendutako finantzaketa-tresnako proiektuen azken aukeraketa-txandak 22 herrialdetako 185 enpresa txiki eta ertain finantzatzea erabaki du. Aukeratutako enpresen artean 6 euskal enpresa daude eta horietatik 4 Gipuzkoakoak dira.

Deialdi honetarako, Europar Batasunak 2.057 proiektu-proposamen jaso zituen. Aukeratutako 185 ETE-ek 175 proiektu aurkeztu zituzten guztira (proiektu batean hainbat ETEk har dezakete parte). Aukeratutako gehienek karbono-intentsitate baxuko energia-sistemekin, elikagaien ekoizpenarekin eta eraldaketarekin, eta markagailu biologikoekin edo osasun-produktuekin (oro har) dute zerikusia.

Deialdi honetan (2. fasea) aukeratutako enpresek 0,5 eta 2,5 milioi euro arteko finantzaketa lor dezakete prototipoak, miniaturizazioak eta I+G jarduerak garatzeko.

Aurretiazko deialdian (1. fasea), produktu berrien bideragarritasunaren azterketa eta kontzeptualizazioa egiteko inbertsioak finantzatzera bideratutakoan, 25 euskal enpresa aukeratu dituzte. Horien artean, 9 Gipuzkoakoak izan ziren. Fase horretan, aukeratutako enpresak 50.000 euroko gehieneko finantzazioa lortu ahal izan zuten.

Informazio gehiago:

<https://ec.europa.eu/easme/node/1968>



> Europako 2017ko Eskualde Ekintzailea Sariarako deialdia

Europako Eskualdeen Batzordeak 2017ko Europako Eskualde Ekintzailea sariaren edizio berria aurkeztu du. Honen helburua ETEak eta enpresariak laguntzeko estrategia duten eskualde eta hirien esfortzua ezagutzera ematea da.

Europako 2017ko Eskualde Ekintzailea Saria urtero hiru eskualdeei ematen zaie. Bere helburua iraganean egindako ekintzak saritzea ez da, baizik eta enpresa eta elkarlana izaera sustatzeko egin diren ekintzak sendotzea. Beraz, saria ez da bakarrik orain arte arlo honetan gogotsu lan egin duten eskualde edota hiriei zuzentzen; baizik eta datozen urteotan estrategia interesagarriak garatuko dituztenei ere.

Europako Eskualdeen Batzordeak saritutako estrategien jarraipena egingo du eta baita sustatu ere. Horretarako epaimahaia bat izendatuko da, Eskualdeen Batzordearen, Europako Batzordearen eta giza arloko kideez osatuta.

Edizio honetako hautagaitzak 2016ko martxoaren 18ra arte aurkeztu ahal izango dira.

Informazio gehiago:

<http://cor.europa.eu/en/takepart/eer/Pages/eer.aspx>



> Energiaren Batasuneratz: hornigaiaren segurtasuna eta iraunkortasuna

Europako Batzordeak energia-segurtasunari buruzko neurri multzo bat aurkeztu du, karbonoan ekonomia merkeago baterantz aurre egiteko eta energia-hornigaia bermatzeko helburuarekin.

Energia-segurtasuna da Energia Unitateko Estrategiaren ardatzetako bat. Era berean, horixe da Juncker Batzordearen lehentasunetako bat. Europar Batasuna energia-horniduren etenduretatik babestuago egon dadin, Europako Batzordeak hainbat neurri ezarri ditu; hauek esate baterako: energiaren eskaera moderatzea, Europan energia-ekoizpena ugaritzea (baita iturri berriztagarrietatik abiatuta ere), energiaren barne-merkatu eraginkorra eta guztiz bateratua garatzen jarraitzea, edo energia-iturriak, hornitzaileak eta ibilbideak dibertsifikatzea.

Energia-segurtasunari buruzko neurri-paketeak aldaketa klimatikoari buruzko hitzarmen unibertsal berria ere kontuan hartzen du eta munduko energia-trantsizioarako oinarriak eta energia garbiekiko konpromisoa ezartzen ditu.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/priorities/energy-union-and-climate_en



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> Europako Inbertsio eta Egitura Funtsak sinplifikatzea: EBko finantzatresnetarako eta finantzaziorako sarbidea ETE-en mesedetarako (Europako Batzordea)

Europako Egitura eta Inbertsio Funtsen (EIE) onuradunentzako sinplifikazioari buruzko eztabaida- eta elkarrizketa-plataforma. Horren bidez, erabiltzaileek esperientziak partekatu, ideiak aurkeztu eta beste alderdi interesdunekin elkarlanean aritu daitezke. Horrela, Europako Egitura eta Inbertsio Funtsen kudeaketa eraginkorragoa lortzen laguntzen da.

Informazio gehiago:

<https://ec.europa.eu/futurium/en/simplify-esif>

> Euskadi, Munduko eskualde aurreratuen artean. Ispilu-jolasa garapen-gida baterako (Alberto Alberdi. Ekonomiaz aldizkaria)

Lan honek Euskadi errenta altueneko eta gainera industrial den eskualde multzoarekin alderatzen du. Horrek metropoliko eremu handiak baztertzen ditu eta berrogeita hamar geratzen dira guztira. Horien artetik gehienak berrikuntzaren eta ezagutzaren gizarterako trantsizio-egoera aurreratuenean daude.

Ispilu-jokoaren metaforaren bidez, guztira zazpi arlo aztertu ditu (produkzio-ehuna, berrikuntza, demografia, enplegua, bizitza-kalitatea, kohesioa eta erakundeak) eta etorkizuneko garapenera eraman dezaketen hamar proposamen egin ditu eta eraldaketa-prozesu horretan laguntza eta ikaskuntza gisa balioko duen eskualdeen balizko sare orokorraren mapa iradokiz.

Informazio gehiago:

http://www.ogasun.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/estudios_publicaciones_dep/es_publica/adjuntos/ikerketak-Ekonomiaz-2015-III.pdf



> **Europarako Inbertsio Plana: Egitura Funtsak eta Europako Inbertsioak Inbertsio Estrategikoetarako Europako Funtsekin konbinatzeko aukerari buruzko bide berriak**

Inbertsio Estrategikoetako Europako Funtsaren (FEIE) eta Europako Egitura eta Inbertsio Funtsen (EIE) konbinazioaren bidez sortutako aukerak aprobetxatzeko tokiko agintariei eta proiektuko sustatzaileei laguntzera zuzendutako argitalpena. FEIE eta EIE Funtsen konbinazio posibleen laburpen bat eskaintzen da, bai proiektu mailan edo finantza-tresna gisa, bai inbertsio-plataforma gisa.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/thefunds/fin_inst/pdf/efsi_esif_compl_en.pdf



EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen eta azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **Urban Innovative Actions. 2016ko Deialdia** ([informazio gehiago](#))
- **INTERREG EUROPE 2014-2020. 2. Deialdia** ([informazio gehiago](#))